



## PRESTA DEZAGUN KANPAINA BAT

### Bigarren

#### Hezitzailearentzako oharrak:

Jarduera honek helburu hauek ditu:

- Ohitura jasangarriagoak izan behar ditugula ikusaraztea.
- Kanpaina bat prestatzea, ohitura jasangarriak sare sozialen bidez zabaltzeko.

Kanpainaren lehen fasean, lan gehiena ordenagailuen edo tableten bidez egin daiteke. Bukaeran, kanpaina sare sozialetan bidez zabaltzeko –bereziki, WhatsApp aplikazioaren bidez–, ikasleek telefono mugikorrek beharko dituzte ondoan. Jarduera honen zati baten lagungarri, Eskola-egutegia erabil dezakezue. Inprimatutako materialean daukazue. Bertan, bizimodu jasangarriagoa izatearen aldeko konpromisoa sinatzeko aukera ematen zaie ikasleei. Jarduera honetan denen artean osatuko duzuen dekalogo oso oinarri garrantzitsua izan daiteke konpromiso hori betetzeko.

#### Garapena:

##### 1. fasea: Ekintzak planteatu

- Ikusi hemen ageri den **infografia** animatua: “**Kontsumitzen dudanak zerikusia al du gosearekin?**”
- Ikasleak taldeka jarri, eta zer egingo duten azaldu:  
«Aurreko jardueretan, ikusi dugu elikagaiak ekoizteko daukagun sistemak ondorio kaltegarriak dituela ingurumenean eta gizakiongan. Elikagaien ekoizpenarekin lotutako alderdi gehienak ez daude gure esku, baina gutxi batzuk bai, guk ere janaria erosten eta botatzen dugulako. Beraz, garrantzitsua da guk ere zerbait egitea, gure esku dagoena aldatzen saiatzeko. Adibidez, arlo hauetan:
  - Kontsumitzeko daukagun moduak.
  - Gure dieta mota.
  - Janariak botatzeko daukagun ohitura.

Talde bakoitzean, hiru alderdi horiek landuko dituzue, eta dekalogo moduko bat osatuko duzue; hau da, gure ohiturak aldatzeko irizpide edo ekintza batzuk zehaztuko dituzue».

- Eman talde bakoitzari lanerako orri bat, eta talde bakoitzak bere proposamena lan dezala.
- Bukatzen dutenean, talde bakoitzak aurkez ditzala proposaturiko ekintzak, eta idatzi arbelean. Ekintza guztiak idatzi ondoren, denen artean aztertu. Antzekoak direnak bateratu, eta denen artean dekalogo bakar bat osatu.

##### 2. fasea: Kanpaina prestatu

- Berriz ere lehenagoko taldeetan jar daitezela. Aurreko fasean denen artean osatutako dekalogoan oinarrituz, sor dezatela eslogan deigarri eta polit bat eta/edo irudi erakargarri bat, dekalogoko punturen bat sare sozialen bidez transmititzeko egokia izan daitekeena (bereziki, WhatsApp bidez).



## Bigarren

### 3. fasea: Kanpaina zabaldu

- Jardueraren muina da hau. Talde bakoitzak prest daukanean bere kanpaina, zabalpena eman beharko dio, sare sozialen bidez.
- Garrantzitsua da kanpaina bukatutakoan ikasleek kanpainaren ebaluazioa egitea eta kanpainak izan duen eragina baloratzea: zenbateko erantzuna jaso duen, zenbat jarraitzaile lortu dituen, iruzkinak, atsegin dut, zenbatek partekatu dituzten argitalpenak, elkarrekintzak, eta abar.

## Eranskina

<b>Helburua</b>	Ekintza zehatz batzuk proposatu behar dituzue, gutxienez gai bakoitzeko bat, gure planetako baliabideei kalte txikiagoa egiten dioten ohiturak har ditzagun. Pentsatu zuen buruarengan eta zuen ingurukoengan: ekintza errazak izan daitezela, edonork egiteko modukoak, eta pertsonen ohiturak aldatzen lagun dezatela.
<b>Hiru gai nagusiak</b>	<p><b>Kontsumitzeko moduak:</b> alderdi hori oso garrantzitsua da, eta puntu hauek biltzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"><li>○ Non egiten ditugu erosketak? Gertu dauden dendetara joaten gara, garraioaren bidez airea gutxiago kutsatzeko? Non ekoizita dago jaten duguna? Begiratzeko al diogu janariaren jatorriari? Gertu sortutakoei ematen al diegu lehentasuna?</li><li>○ Zenbat kontsumitzen dugu? Gauza batzuk gehiegi kontsumitzen al ditugu?</li><li>○ Gutxiago kontsumitzeko moduei buruz hausnartu, eta gertuko produktuak kontsumitzeko aukeran pentsatu: abantailak eta desabantailak.</li></ul> <p><b>Gure dieta mota:</b> jaten dugunak eragin handia dauka gose daudenengan eta elikagaiak eskuratzeko dauzkaten aukeretan, baita ingurumenean ere. Horrek garrantzi handia du haragiaren kasuan, haragi gehiegi jaten baitugu.</p> <p><b>Janariak botatzea:</b> alderdi hori funtsezkoa da, kontsumitzaileok janari pila bat botatzen dugulako zaborretara, hainbat arrazoirengatik. Garrantzitsua da gure inguruan janaria zergatik botatzen duten jakitea eta arazo horri aurre egiteko ekintza zehatz batzuk proposatzea.</p>